

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 16,00 horas del día 27 de diciembre de 2018, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D^a Aneva Cilveti Loperena, D. Mikel Gaztelu Alonso, D. Iñaki Xabier Yoller Urdiroz y D. Francisco Javier Dufur Oharriz bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Luis De Potestad Tellechea, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. D. Arkaitz Karrika Iribarren y D. Pedro Juan Karrika Narbaitz excusan su asistencia.

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE SESIÓN DE 27 DE JULIO, 15 DE OCTUBRE Y 15 DE NOVIEMBRE DE 2018

La Corporación acuerda por unanimidad la aprobación de las actas de sesión celebradas los días 27 de julio, 15 de octubre y 15 de noviembre de 2018.

2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE 25 DE JULIO HASTA EL 20 DE DICIEMBRE DE 2018

Informa el alcalde Sr. De Potestad, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 25 de julio hasta el 20 de diciembre de 2018, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

3.- APROBACIÓN PRESIÓN FISCAL 2019

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que propone mantener los mismos tipos que el año pasado.

En cuanto al incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana (plusvalía) se estará a lo dispuesto en el art. 175 y 176 de la Ley Foral de Haciendas Locales 2/1995 de 10 de marzo.

- 1.-Fijar el 0,2824 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial urbana.
- 2.-Fijar el 0,80 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial rústica.
- 3.-Fijar el 3 por ciento, sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. (Tarifa mínima 30 €)
- 4.-Aplicar el índice 1,4 a las tarifas de impuesto de actividades económicas
- 5.- Respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, aplicar los porcentajes máximos establecidos en el artículo 175 de la Ley Foral 2/1995. Fijando el tipo de gravamen en el 8,5.
- 6.- Fijar una tasa de 30 euros por lote de leña de hogar.
- 7.- Eliminar al resto de las exacciones tributarias municipales la aplicación del IPC

Se acuerda por unanimidad aceptar la propuesta planteada por el Sr. Alcalde y aprobar la Presión Fiscal del año 2019 en los siguientes términos:

- 1.-Fijar el 0,2824 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial urbana.
- 2.-Fijar el 0,80 por ciento el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial rústica.

- 3.-Fijar el 3 por ciento, sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. (Tarifa mínima 30 €)
- 4.-Aplicar el índice 1,4 a las tarifas de impuesto de actividades económicas
- 5.- Respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, aplicar los porcentajes máximos establecidos en el artículo 175 de la Ley Foral 2/1995. Fijando el tipo de gravamen en el 8,5.
- 6.- Fijar una tasa de 30 euros por lote de leña de hogar.
- 7.- Eliminar al resto de las exacciones tributarias municipales la aplicación del IPC

4º.- APROBACION PRESUPUESTO REVISION PONENCIA VALORACIÓN

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa que ha transcurrido más de cinco años desde la última ponencia de valoración catastral, debiendo proceder a la revisión de la misma, ya que la no actualización de la misma repercutiría entre otras cosas, en una disminución del 10 % de la aportación del Fondo de Haciendas Locales. Por ello, la empresa Tracasa, previa petición de esta alcaldía, ha presentado una oferta para la elaboración de la documentación necesaria para la tramitación de la PONENCIA DE VALORACION de Auritz/Burguete, la cual asciende a 6.045,55 euros. IVA incluido.

A la vista de lo cual, la corporación por unanimidad ACUERDA:

- 1º.- Aprobar la elaboración del proyecto de revisión de la Ponencia de Valoración de Auritz/Burguete
- 2º.- Aprobar la oferta presenta da por Tracasa de 6.045,55 euros IVA incluido
- 3º.- Trasladar al Servicio de Riqueza Territorial y Tributos Patrimoniales (SRTTP) el acuerdo adoptado para que quede constancia en el expediente.
- 4º.- Trasladar a Tracasa el acuerdo adoptado para iniciar los trámites y proceder a la elaboración del documento de Revisión de la Ponencia de Valoración de Auritz/Burguete.

5.- PROPUESTA CALENDARIO FIESTAS LOCALES, Y CALENDARIO LABORAL PROBACION

Vista la propuesta de calendario formulada por el alcalde Sr. De Potestad, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar el siguiente calendario de fiestas locales:

Fiesta patronal de San Juan:	24 de junio
San Nicolás:	5 de diciembre

2º.- Trasladar el presente acuerdo al Cuartel de la Guardia Civil, al Centro de Salud, al Parque de Bomberos, a las entidades bancarias ubicadas en este municipio y a cuantas entidades y organismos afecte dicho calendario para su conocimiento y efectos oportunos.

3º.- Aprobar el calendario laboral ya remitido por la Asesoría Laboral Indarra y que se ajusta al calendario aprobado por el Gobierno de Navarra para sus empleados.

6.- RATIFICACION ADJUDICACION OBRAS CALLE IPETEA

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa que para las obras de Renovación de Pavimentación en Calle Ipetea, presentaron ofertas Sasoi Eraikuntzak y

Obras y Proyectos del Pirineo Siglo XXI, que tras la valoración realizada de acuerdo al pliego de condiciones, la mesa de contratación propone al Pleno adjudicar la obra por ser la oferta más ventajosa para el Ayuntamiento a Sasoi Eraikuntzak, en la cantidad de noventa y un mil ochocientos un euros con cincuenta y siete céntimos (91.801,57 €) más I.V.A. Así mismo, se informa que la obra se llevará a cabo siempre y cuando el Ayuntamiento tenga capacidad financiera suficiente, para ello es necesario no solo recibir la subvención de Administración Local a través del Plan Financieramente Sostenible, sino también conseguir la subvención que Industria saca para los polígonos industriales, subvención compatible con la anterior. Punto que se recoge en el pliego de condiciones y que así es aceptado por la empresa adjudicataria.

Se acuerda por unanimidad, ratificar la propuesta formulada por la mesa de contratación adjudicando a Sasoi Eraikuntzak, en la cantidad de noventa y un mil ochocientos un euros con cincuenta y siete céntimos (91.801,57 €) más I.V.A., las obras de Renovación Pavimentación Calle Ipetea de Auritz/Burguete.

7.- APROBACIÓN MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

Se informa por el alcalde Sr. De Potestad, que es necesario aprobar las siguientes modificaciones presupuestarias, relativas a las partidas, 1 2 1, 1 9 1, 1 9 2 y 1 9 6 por no haber bolsa suficiente. Se informa que respecto a la partida de material y mantenimientos generales no está todo contabilizado y puede que hasta el 31 de diciembre llegue alguna factura más que se tendrá en cuenta para el monto total de la modificación.

Motivos por los cuales, al no haber partidas presupuestarias suficientes o directamente no haber partida y debiendo regularizar el presupuesto, procede aprobar las presentes modificaciones con cargo en este caso al remanente de tesorería para gastos generales.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar las siguientes modificaciones presupuestarias

EXPEDIENTE DE HABILITACIÓN DE SUPLEMENTOS CREDITO DEL PRESUPUESTO GENERAL ÚNICO PARA EL EJERCICIO DE 2018, CUYO RESUMEN ES EL SIGUIENTE:

PRIMERA

MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 1532 6190000	OBRAS PAV. RONCESVALLES	32.154,47
TOTAL MODIFICACIONES		32.154,47
		€

FUENTES DE FINANCIACIÓN

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
----------------	---------------------	----------------

1 87000	REM TES AFECTO (MECNA CEMENTERIO)	32.154,47 €
---------	-----------------------------------	-------------

TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN		32.154,470 €
--------------------------------------	--	---------------------

SEGUNDA
MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 2399 4820000	SOLIDARIDAD BENEF. BANCO ALIMENTOS	616,40

TOTAL MODIFICACIONES		616,40€
-----------------------------	--	----------------

FUENTES DE FINANCIACIÓN

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 87000	REM TES GASTOS GENERALES	616,40 €

TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN		616,40€
--------------------------------------	--	----------------

TERCERA
MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 3331 2120000	MANT. CASA DE CULTURA	3.000,00

TOTAL MODIFICACIONES		3.000,00€
-----------------------------	--	------------------

FUENTES DE FINANCIACIÓN

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 870	REM TES GASTOS GENERALES	3.000,00€

TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN		3.000,00 €
--------------------------------------	--	-------------------

CUARTA
MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 4320 6920000	LINDUS 2	9.183,08

TOTAL MODIFICACIONES	9.183,08€
-----------------------------	------------------

FUENTES DE FINANCIACIÓN

PARTIDA	DENOMINACION	IMPORTE
1 870	REM TES GASTOS GENERALES	39.183,08€

TOTAL FUENTES DE FINANCIACIÓN	9.183,08€
--------------------------------------	------------------

Todo esto se realiza en virtud de lo dispuesto por los artículos 212 y siguientes de la Ley Foral 2/1995 de las Haciendas Locales de Navarra.

De conformidad con el artículo 276 de la Ley Foral 6/1990 de 2 de Julio de la Administración Local de Navarra, estos Expedientes quedan expuestos al público por espacio de 15 días hábiles en Secretaría Municipal, al objeto de que puedan ser examinados por quien lo desee y, en su caso, presentar las reclamaciones que se estimen pertinentes.

Si no se formularan reclamaciones, estos expedientes así aprobados se considerarán definitivos y cumplido el trámite de publicación del resumen del mismo.

8.- SOLICITUD ASOCIACION DE MUNICIPIOS DEL CAMINO DE SANTIAGO (AMCS)

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que informa de la conversación mantenida con la secretaria de la Asociación de Municipios del Camino de Santiago, sobre su funcionamiento y sobre los beneficios de formar parte de la misma, como interlocución directa con el Ministerio de Fomento, posibilidad de acceder a subvenciones para mejoras y mantenimiento del camino, promoción del mismo etc., el saber que cada municipio es un voto, todo ello le parece interesante, por lo que propone asociarse a la mencionada asociación, aprobando sus estatutos y la cuota anual de 250 euros.

Se acuerda por unanimidad:

1º.- Que el Ayuntamiento de Auritz/Burgete se asocie a la Asociación del Municipios del Camino de Santiago, aprobar sus estatutos y la cuota anual de 250 euros.

2º.- Dar traslado a la Asociación de Municipios del Camino de Santiago del acuerdo adoptado.

9.- APROBACION DECLARACION INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE

Se acuerda como los años anteriores aprobar la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE

Cada 25 de Noviembre, reparamos en el carácter estructural de la violencia machista siendo esta una de las manifestaciones de las relaciones asimétricas de poder de los hombres sobre las mujeres. Se trata de una violencia que se vincula a la estructura patriarcal, que genera y reproduce las desigualdades entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida y en todas las edades. Siendo las desigualdades de género una de las más persistentes violaciones de los derechos humanos que existen en la actualidad, este año queremos poner el foco en las cifras de asesinadas que escuchamos día tras día, como un goteo incesante. Si bien fue una reivindicación fundamental en su época, el hecho de contabilizar las asesinadas por violencia contra las mujeres se ha convertido en algo habitual. Disponer de datos cuantitativos fue un logro que permitió dimensionar la magnitud del problema y así poder diseñar políticas y destinar recursos para acabar con él. Sin embargo, parece que estamos padeciendo una sobrehabituación al conteo sin cese de mujeres asesinadas, y es que parece que nos hubiésemos acostumbrado a que, casi cada día, un hombre asesine a una mujer. Prácticamente cada día sabemos de mujeres agredidas, amenazadas, que ven coartada su libertad, que se les condena a vivir con miedo. Esto no es admisible, sostenible ni soportable en sociedades democráticas: ¡NO SON SOLO CIFRAS. SON NUESTRAS VIDAS! Detrás de cada número está la vida de una mujer que ha cesado. Una vida llena de proyectos e ilusiones que nunca más será. Cada 1 de enero el contador de asesinadas por violencia contra las mujeres se pone a 0 y este mismo hecho invisibiliza apreciar que la violencia de género, la manifestación más cruel de la desigualdad existente en nuestra sociedad, se ha cobrado la vida de 947 mujeres en el Estado español desde 2003, año en que se empezaron a contabilizar las mujeres asesinadas.

Por todo ello, de manera colectiva, las Entidades Locales MANIFESTAMOS: NUESTRA REPULSA ante todo tipo de violencia sexista producto de las múltiples discriminaciones que sufren las mujeres en cualquier ámbito y contexto.

NUESTRO COMPROMISO como Administraciones Públicas a seguir trabajando activamente contra todas las desigualdades que generan situaciones de vulnerabilidad y de violencias contra las mujeres y las niñas, invitando con ello a la reflexión y asunción de compromisos tanto a los gobiernos e instituciones públicas, como a los organismos internacionales y sociedad civil.

NUESTRA SOLIDARIDAD con las mujeres agredidas o asesinadas, con las mujeres y las niñas que enfrentan la violencia sexista.

E INVITAMOS A TODA LA CIUDADANÍA a seguir mostrando su rechazo y su compromiso con la erradicación de la violencia contra las mujeres, la denuncia de todas las manifestaciones de control patriarcal y de limitaciones y condicionamientos del ejercicio de la libertad y la autonomía de las mujeres, y a participar en todas las actividades que se organicen en torno al 25 de Noviembre.

10.- ADJUDICACION PARCELA 274, POL. 5, KANALEBURUA

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que informa que tras la celebración de las subastas públicas para la venta de la parcela 274, polígono 5 de Kanaleburua, la segunda de ellas con el 20% de rebaja, se ha presentado una oferta abierta en acto público, por

parte del Sr. Enrique Gomar Parra de 23.100 euros más IVA. La mesa de contratación propuso adjudicar provisionalmente a D. Enrique Gomar Parra, la mencionada parcela por ser la oferta más ventajosa. Transcurrido el sexteo sin que se formulara, la adjudicación pasó a ser definitiva. Por ello y con el fin de ratificar la propuesta formulada por la mesa de contratación procede acordarla en Pleno.

La Corporación por unanimidad acuerda:

1º.- Ratificar la propuesta formulada por la Mesa de Contratación, adjudicando la parcela 274, polígono 5 a D. Enrique Gomar Parra, en la cantidad de 23.100,00 euros más IVA y de acuerdo al pliego de condiciones aprobado y aceptado por el ofertante.

2º.- Facultar al alcalde para la firma de escrituras y demás documentos que genere la presente operación.

3º.- Trasladar a la Notaría Pegenaute, el acuerdo adoptado junto con datos relativos al comprador a fin de formalizar y escriturar la compraventa de la parcela 277, polígono 5.

11.- INFORMACION VARIA

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa sobre los siguientes asuntos:

Homenajes Javier Zuñiga y Fermin Dufur.

Se propone mandar un recordatorio a la familia del Sr. Javier Zúñiga en reconocimiento a su contribución con esta localidad por su labor con el mantenimiento, señalización del Camino de Santiago, su trabajo como bombero y su apoyo. Así mismo se propone agradecer al Sr. Fermin Dufur su ayuda y aportación en la promoción del deporte a nivel de zona (bostkirol) etc.

La Corporación estando conforme se da por enterada.

Desmentido en relación con alcalde de la legislatura pasada Sr. Irigaray

El alcalde Sr. De Potestad, informa que a raíz de la ocupación temporal de un terreno durante la ejecución de las obras de pavimentación de la Calle Roncesvalles, se le transmitió una queja sobre el hecho de que algún concejal de la actual corporación le propinó un grave insulto al anterior alcalde de este Ayuntamiento. Por su parte manifiesta que no tiene ni idea de este hecho y que no le consta, por lo que quiere desmentirlo públicamente ya que él cree que en los actos plenarios eso no se ha dicho y que ellos no funcionan de esa manera y quiere que conste en acta. La concejala Sra. Cilveti, pregunta quien ha sido el que le ha transmitido al alcalde la mencionada queja, contestando el Sr. De Potestad que ha sido Fermin Irigaray.

Todos los miembros presentes de la corporación manifiestan su asombro y ratifican lo expresado por el Sr. Alcalde.

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Toma la palabra la concejala Sra. Cilveti, pregunta sobre la finalización de las obras de la casa de Marisol Goicoa y cuanto tiempo tiene para terminarlas y la casa de la farmacéutica anterior que está en muy mal estado. Respecto a la última se trasladará a la arquitecta para que informe sobre su estado, procediendo en su caso a dictar una orden de ejecución y expediente de disciplina urbanística.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que pregunta sobre la situación del piso y Bar del Frontón arrendados a l toma la palabra el concejal Sr. Yoller que informa que él y el alcalde, estuvieron reunidos con ellos y les trasladaron que iban a dejar el piso y el bar. De hecho y respecto al piso ya se le dijo que no se le iba a renovar otro año más, ya en el pliego aprobado por la legislación anterior se establecía que la última prórroga era hasta el 31 de diciembre de 2019. De hecho, del piso, ya están haciendo la mudanza. En cuanto al bar, parece que se van a Ultzama, a Iraizotz a ayudarle a un hijo que ha arrendado la posada de Iraizotz. Toma la palabra de nuevo el concejal Sr. Gaztelu que pregunta, qué pasa si no dejan el piso o no entregan las llaves?. El alcalde Sr. De Potestad contesta que no cree que haya ningún problema a este respecto, que cuando dejen la vivienda devolverán las llaves, se podrá ver en qué estado se encuentra así como el bar, el cual habrá que por lo menos, darle una mano de pintura. Toma la palabra la Secretaria que informa que en el caso de que haya algún problema para eso están los avales, los cuales no se devolverían hasta comprobar que todo está correcto.

Siguiendo con el tema de la vivienda, el alcalde Sr. De Potestad, informa que la rehabilitación de las cuatro viviendas a través de Nasuvinsa está algo parado debido a la Ley del Plan de Obras Financieramente Sostenible ya que no hay de momento partida que cubra estas necesidades.

Por último y respecto al parque micológico, la concejala Sra. Cilveti, informa que se van a hacer varias presentaciones, una de ellas en Auritz/Burguete, se hablará con Eburne Gerendiain de Garrapo para concretar día, hora y lugar.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 16,30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2018ko abenduaren 27an, 16:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Aneva Cilveti Loperena, Mikel Gaztelu Alonso, Iñaki Xabier Yoller Urdiruz eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkatea, Luis De Potestad Tellechea izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure; Arkaitz Karrika Iribarren eta Pedro Juan Karrika Narbaitz zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute.

1.- 2018ko UZTAILAREN 27AN URRIAREN 15EAN ETA AZAROAREN 15EAN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2018ko uztailaren 27an, urriaren 15ean eta azaroaren 15ean egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- 2018KO UZTAILAREN 25ETIK ABENDUAREN 20A ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, de Potestad jn.ak., 2018ko uztailaren 25etik abenduaren 20ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

3.- 2019KO ZERGA-TASAK. ONESPENA.

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta proposatu du joan den urteko tipoak mantentzea.

Hiri-lurren balioaren igoerari dagokionez, martxoaren 10eko 2/1995 Toki Ogasuneko Foru Legearen 175. eta 176. Artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Aho batez erabaki da alkateak proposatu duena onestea eta 2019ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:

- 1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
- 2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175 artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoak aplikatzea, 8,5 karga-tasa ezarriz.
- 6.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.
- 7.- Gainontzeko zerga tasak KPIren igoeratik salbustea.

Aho batez erabaki da alkateak proposatu duena onestea eta 2019ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:

- 1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
- 2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175 artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoak aplikatzea, 8,5 karga-tasa ezarriz.
- 6.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.
- 7.- Gainontzeko zerga tasak KPIren igoeratik salbustea.

4.- BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSTEKO AURREKONTUAREN ONESPENA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du katastroaren azkeneko balorazio ponentzia egin zenetik bost urte baino gehiago pasatu direla eta berrikusi behar dela, hori egin ezean ondorio batzuk etorriko baitira, besteak beste Tokiko Ogasunen Fondotik jasotzen dena %10 murriztea.

Hortaz, Tracasak, alkatetzak alde zuzenetik eskatuta, eskaintza aurkeztu du Aurizko BALORAZIO PONENTZIA izapidetzeko behar den dokumentazioa prestatzeko eta aurrekontua 6.045,55 eurokoa da, BEZ barne.

Horiek horrela, Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Aurizko Balorazio Ponentzia berrikusteko proiektua prestatzeko proposamena onartzea.
- 2.- Tracasak aurkeztu duen eskaintza onartzea, 6.045,55 eurotan, BEZ barne.
- 3.- Hartutako erabakia Lurralde Aberastasuneko eta Ondareko Zergen Zerbitzura igortzea, txostenean hori sar dadin.
- 4.- Hartutako erabakia Tracasari jakinaraztea, Aurizko Balorazio Ponentzia Berrikusteko prozesuari hasiera eman eta dokumentua prestatzen hasteko.

5.- HERRIKO FESTEN EGUTEGIA ETA LAN EGUTEGIA. ONESPENA.

Ikusirik alkateak, de Potestad jk., egin duen egutegi proposamena, aho batez erabaki da:

1º.- Tokiko festen egutegi hau onartzea:

San Juan festa: ekainaren 24a

San Nikolas: abenduaren 5a

2.- Erabaki honen berri Goardia Zibilaren kuartelari, Osasun Etxeari, Suhiltzaileen parkeari, udalerrri honetan dauden banku etxeei eta egutegiak eragin dezakeen gainerako entitate eta erakundeei, jakin dezaten eta beharrezko ondorioetarako.

3.- Indarra Lan Aholkularitzak igorri duen lan egutegia onartzea, Nafarroako Gobernuak bere langileentzako onartzen duenarekin bat egiten baitu.

6.- IPETEA KARRIKAKO LANEN ADJUDIKAZIOA BERRESTEA

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Ipeteako karrikako Zolaketa Berritzeko lanak adjudikatzeko bi enpresek eskaintza aurkeztu zutela, Sasoi Eraikuntzak eta Obras y Proyectos del Pirineo Siglo XXI; baldintza pleguaren arabera egindako balorazioaren ondoren, kontratazio mahaiak proposatu du lanak Sasoi Eraikuntzak enpresari adjudikatzea, eskaintzarik hoberena delakoan, laurogeita hamaika mila eta zortzirehun eta bat euro eta berrogeita hamazazpi zentimotan (91.801,57 €) , gehi BEZ. Modu berean jakinarazi da beti ere lanak eginen direla Udalak ahalmen finantzario nahikoa duenean, eta, hartara, beharrezkoa dela Tokiko Administrazioiko Departamentuak Finantzarioki Jasangarria den Planaren bidez emango duen dirulaguntza jasotzea eta Industria Departamentuak industrialdeentzako ematen duen dirulaguntza ere jasotzea, aurrekoarekin bateragarria baita. Hori baldintza pleguan jaso da eta adjudikazioduna izan den enpresak onartu du.

Aho batez erabaki da kontratazio mahaiak egin duen proposamena berrestea eta Aurizko Ipetea karrikako Zoladura Berritzeko lanak Sasoi Eraikuntzak enpresari adjudikatzea, laurogeita hamaika mila eta zortzirehun eta bat euro eta berrogeita hamazazpi zentimotan (91.801,57 €) , gehi BEZ.

7.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA.

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du beharrezkoa dela ondoren aipatzen diren aurrekontuko aldaketak onartzea, ez baitago poltsa nahikorik: 1 2 1, 1 9 1, 1 9 2 eta 1 9 6. Jakinarazi da materialaren eta mantentzen orokorraren gaineko kontu saila ez dagoela osorik kontabilizatua eta balitekeela abenduaren 31 baino lehen oraindik fakturaren bat iristea eta hori kontuan hartuko dela aldaketa osoa egitean.

Arrazoi horiek direla kausa, aurrekontu sail nahikorik ez dagoenez edo sailik ez baitago eta aurrekontua erregularizatu behar denez, honako aldaketak onartu behar dira, diruzaintzako soberakinaren kargura.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako aurrekontu aldaketak onartzea:

2018KO URTEALDIKO AURREKONTU OROKOR BAKARREKO KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA. HONA HEMEN LABURPENA:

LEHENA

AURREKONTUKO ALDAKETAK.

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 1532 6190000	ORREAGA KARRIKAKO ZOL. LANAK	32.154,47 €

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	32.154,47 €
--------------------------	-------------

FINANTZAKETA ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	SOBERAKINAN (MECNA HILERRIA)	32.154,47 €

<i>FINANTZAKETA ITURRIAK GUZTIRA</i>	32.154,47 €
--------------------------------------	-------------

BIGARRENA

AURREKONTUAREN ALDAKETAK.

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 2399 4820000	ELKARTASUNA ELIKAGAI BANKUA	616,40 €

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	616,40 €
--------------------------	----------

FINANTZAKETA ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 87000	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	616,40 €

<i>FINANTZAKETA ITURRIAK GUZTIRA</i>	616,40 €
--------------------------------------	----------

HIRUGARRENA

AURREKONTUKO ALDAKETAK.

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3331 2120000	KULTUR ETXEA MANTENTZEA.	3.000,00 €

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	3.000,00 €
--------------------------	------------

FINANTZAKETA ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
------------	-------	------------

1 870	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	3.000,00 €
--------------	------------------------------------	-------------------

FINANTZAKETA ITURRIAK GUZTIRA		3.000,00 €
--------------------------------------	--	-------------------

LAUGARRENA

AURREKONTUKO ALDAKETAK.

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4320 6920000	LINDUS 2	9.183,08 €

ALDAKETAK OSOTARA		9.183,08 €
--------------------------	--	-------------------

FINANTZAKETA ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	GASTU OROKORREN SOBERAKINAK	9.183,08 €

FINANTZAKETA ITURRIAK GUZTIRA		9.183,08 €
--------------------------------------	--	-------------------

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat eginez espediente horiek jendaurrean egonen dira 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan, nahi duen orok horiek aztertu eta egokiak deritzon erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik egon ezean, orain onartu diren espedienteak behin betikotzat kontsideratuko dira eta horien laburpena argitaratzeko tramitea bukatutzat emango da.

8.- DONEJAKUE BIDEKO UDALERRIEN ELKARTEKO ESKAERA

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du Donejakue Bideko Udalerrien Elkarteko idazkariarekin mintzatu dela eta haren funtzionamendua eta parte hartzeko onurei buruzko informazioa eman ziola eta badutela Sustapen Ministerioarekin harreman zuzena eta, hortaz, bidea hobetu eta mantentzeko, bidea sustatzeko, eta abarreko diru-laguntzak lor daitezkeela., Udalerri bakoitzak boto bat dauka eta hori guztia interesgarria iruditzen zaiola, eta, hortaz, elkarte horretan sartzea proposatu du eta, hartara, estatutuak eta urteko 250 euroko kuota onartuz.

Aho batez erabaki da:

- 1.- Aurizko Udala Donejakue Bideko Udalerrien Elkartean sartzea, estatutuak eta urteko 250 euroko kuota onartuz.
- 2.- Donejakue Bideko Udalerrien Elkarteari hartutako erabakiaren berri ematea.

9.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA.

Aurreko urteetan bezala AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau onartzea erabaki da.

Azaroaren 25ero, indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmentzen dugu, horixe baita gizonezkoek emakumeengan dituzten botere-harreman asimetrikoen adierazpenetako bat. Egitura patriarkalari lotzen zaion indarkeria da, emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak sortzen eta birsortzen dituen bizitzaren esparru guztietan eta adin-tarte orotan. Genero-disparekotasuna gaur egun gertatzen den giza eskubideen urraketarik iraunkorra den heinean, aurten hil dituzten emakumeen kopurua bihurtu nahi dugu arreta gune, egunez egun etengabeko jario baten moduan entzuten dugun hori. Garai batean oinarrizko aldarrikapena izan bazen ere, emakumeen kontrako indarkeria dela medio hil dituzten emakumeak zenbatzea ohiko bihurtu da. Datu kuantitatiboak edukitzea lorpena izan zen, arazoaren larritasuna neurtzeko bide eman baitzuen, eta hartara, arazoa desagerrarazteko politikak diseinatu eta baliabideak bideratzeko. Aitzitik, hil dituzten emakumeen zenbaketa amaigabearekin ohituak garela dirudi, are, sobera ohituak, ematen baitu jada ohikoa dela guretzat ia egunero gizon batek emakume bat hiltzea. Ia-ia egunero izaten dugu erasotuak, mehatxatuak diren emakumeen berri, beren askatasuna mugaturik ikusi eta beldurrez bizitzera kondenatuak direnena. Hori, gizarte demokratikoetan, onartezina, jasanezina eta eramangaitza da: EZ DIRA KOPURUAK BESTERIK. GEURE BIZIAK DIRA.

Zenbaki bakoitzaren giblean emakume bati etendako bizia dago. Proiektu eta ilusioz beteriko bizia, sekula berriz biziko ez dena. Urtero, urtarrilaren leian, emakumeen aurkako indarkeriagatik hil dituzten emakumeen kontagailua zerora jartzen da, eta horrek galarazten du ikustea genero-indarkeriak, gure gizartean den disparekotasunaren adierazpen ankerrenak, 947 emakumeren biziak eraman dituela estatu espainiarrean 2003az geroztik, eraildako emakumeen zenbaketa egiten hasi zenetik, alegia. Horregatik, modu kolektiboan, toki-entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota orori. GURE KONPROMISOA, Administrazio Publiko garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko disparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatoen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira; eta gonbita egin nahi diegu hala gobernuei eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten. GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakumei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatoei. ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumei haien askatasuna eta autonomia erabiltzen eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.

10.- 5. POLIGONOKO 274 LURZATIAREN ADJUDIKAZIOA, KANALEBURUA.

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Kanaleburuan, 5. Poligonoko 274 lurzatia enkante publikoren bidez saltzeko egin diren enkante publikoen ondoren, bigarrena %20 merketuz, ekitaldi publikoan irekitako eskaintza aurkeztu duela Enrique Gomar Parra

jaunak, eta 23.100 € gehi BEZ eskaini duela. Kontratazio mahaiak aipatutako lurzatia Enrique Gomar Parra jaunari hasiera batean adjudikatzea proposatu zuen, eskaintzarik hoberena delakoan. Sesteoaren epean eskaintzarik aurkeztu ez denez, adjudikazioa behin betikoa da. Hortaz eta kontratazio mahaiak egin duen proposamena berresteko, osoko bilkurak erabakia hartu behar du.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Kontratazio Mahaiak egin duen proposamena berrestea, 5. Poligonoko 274 lurzatia Enrique Gomar Parra jaunari 23.100,00 eurotan, gehi BEZ, adjudikatuz, Udalak onetsi eta eskaintza egin duenak onartutako baldintza pleguaren arabera.
- 2.- Alkateari ahalmena ematea izapideak sortuko dituen eskriturak eta gainerako dokumentuak sinatzeko.
- 3.- Hartutako erabakia eta eroslearen datuak Pegenaute Notaritzari jakinaraztea, 5. Poligonoko 274 lurzatiaren salerosketa gauzatu eta eskriturak prestatzeko.

11.- BESTERIK

Alkateak, de Potestad jk., hitza hartu du eta informazio hau eman du:

Javier Zuñiga eta Fermin Dufur, omenaldiak.

Javier Zuñigaren familiari oroigarria igortzea proposatu da, gure herriaren alde egindakoa eskertzeko: Donejakue Bidean egindako mantentze eta seinaleztatze lanak eta suhiltzaile gisa herriaren alde egindako lana. Modu berean proposatu da Fermin Dufurri eskertzea eskualdeko mailako kirola (bostkirol eta abar) sustatzeko egindakoa . Udalbatza, ados egonik, jakitun da.

Aurreko legegintzaldiko alkatearekiko, Irigaray j., gezurtapena

Alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du Orreaga karrikako zolatze lanak egin bitartean lursail bat okupatzearen ondorioz, kexa bat iritsi zitzaioela udalbatzako zinegotzi batek aurreko alkatea iraindu zuelako. Bere aldetik dio ez duela horren berri eta ez dakiela deus ere horri buruz, eta, hortaz, publikoki gezurtatu nahi du uste duelako osoko bilkuretan ez dela horrelakorik esan eta beraiek ez baitute horrela jokatzeko eta hori guztia aktan agertzea nahi du. Cilveti zinegotziak galdetu du zeinek helarazi dion kexa hori alkateari eta de Potestad jk. Erantzun dio Fermin Irigaray izan dela. Udalbatzako kideek harridura erakutsi dute eta alkateak dioena berretsi dute.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Cilveti zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du noiz arte duen epea Marisol Goicoak bere etxeko obra bukatzeko eta zertan den aurreko botikariaren etxea, oso egoera txarrean baitago. Azken horri dagokionez arkitektoari esango zaio informea egiteko eta, beharrezkoa balitz, hirigintzako diziplina txostena egingen da.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du zertan den Martin Suarez Arbillak alokaturik dituen pisua eta frontoiko tabernaren egoera. Yoller zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du alkatearekin batera maizterrekin elkartu zirela eta pisua eta taberna

uzteko asmoa zutela adierazi zietela. Izan ere, bazekien pisuaren alokairua ez zitzaiola berrituko, aurreko legegintzaldian onetsitako baldintza pleguan esaten baita azkeneko luzapena 2019ko abenduaren 31n bukatuko zela. Dagoeneko ari dira pisuko aldaketa egiten. Tabernari dagokionean badirudi Ultzamara doazela, Iraizotzera, hango ostatua alokatua duen semeari laguntzera. Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du zer gerta daitekeen pisua uzten ez badute edo giltzak itzultzen ez badituzte. Alkateak, de Potestad jk., erantzun du ez duela uste arazorik egonen denik, etxebizitza uzten dutenean giltzak itzuliko dituztela eta ikusiko dela pisua nola dagoen, baita taberna ere, eta azken hau gutxienez, margotu beharko dela dio. Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du arazoren bat egonez gero, abalak daudela, eta dena behar bezala dagoela frogatu arte ez direla itzuliko.

Etxebizitzaren gaiarekin jarraituz, alkateak, de Potestad jk., jakinarazi du lau etxebizitzak Nasuvinsaren bitartez zaharberritzearen afera nahiko geldirik dagoela Finantzarioki Jasangarriak diren Obren Planaren Legea dela eta, horrelako beharretarako dirurik ez baitago momentuz.

Azkenik eta parke mikologikoari dagokionez, Cilveti zinegotziak jakinarazi du aurkezpen batzuk eginen direla, horietako bat Auritzen, eta Garrapo enpresako Edurne Gerendiainekin hitz eginen duela eguna, ordua eta tokia zehazteko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, egun bereko 16:30ean, bilkurari bukaera eman zaio eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.